

## SONIA FLORESEN IBILBIDEA



**GOIAZ! 2017**

Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 26an eta 27an**



goiazdebagoiena




DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko  
eta Lurralde Orokako Departamentua

### Lan merkatua



**S**onia Flores arrasatearrak ondo ezagutzen du Lanbide Heziketa; izan ere, 3. heziketa zikloa ikasten ari da, guztiak pertsonen osasun edo arretarekin lotutakoak. Egun, Osasun Larrialdiak erdi-mailako ziklo berria ikasten dabil Arizmendi Ikastolan.

**Zein izan da zure ibilbidea Lanbide Heziketan?**

Batxilergoa bukatuta, pertsonen arretarekin lotutako zerbeit ikasi nahi nuen, eta Gizarteratzea goi-mailako zikloa ikasi nuen. Ondoren, Erizaintzako Zaintza Osagarriak erdi-mailakoa egin nuen, egoitza batean lanean ari nintzen bitartean.

**Osasun Larrialdiak zikloa berria da eskualdean. Zergatik aukeratu duzu?**

Sorospen ikastaro bat egin nuen Gurutze Gorrian, eta, ordutik hona, boluntario ibili naiz urte askoan, ber-

tan, anbulantzietan lanean. Asko gustatzen zait pertsoneri laguntzea, eta nire profila osatzeko hasi naiz berri ere ikasten. Eskualdean eskainiko zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan, eta oso gustura nabil.

**Beraz, ikasten, lanean eta boluntario lanak egiten ibili zara batera?**

Bai; gogorra izan zen, baina gauza bat gustuko duzunean, badakizu, ez da hainbeste kostatzen....

**Zer iruditzen zaizkizu Lanbide Heziketako zikloetako ikasketak?**

Ikasten dituzun gauzak egunerokotasunean erabiltzen dituzu; gainera, egin ditudan zikloak osagarriak dira, eta anbulantzian noanean, Erizaintzako Zaintza Osagarrietan ikasitakoa ere erabiltzen dut. Uste dut lan-merkatuan eskaera handia dagoela pertsonen zaintzarekin lotutako zikloetan.